

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

LAUDIOKO UDAL EUSKALTEGIA

Hasierako onespena ematea 2023rako udal aurrekontuko kredituak aldatzeko espedienteari, kreditu gehigarriak emateagatik. Hasierako onespena. (Espedientea: 2023/236/S200)

2023ko irailaren 14an, Laudioko Udal Euskaltegiko Administrazio Kontseiluak, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

Onestea kreditu gehigarrien modalitateko kredituak aldatzea, 2022ko abenduaren 31ko diruzaintzako gerakinaren kontura

Aurrekontuan behar jakin batzuei aurre egiteko esleipenik ez dagoenez, Udal Euskaltegiaren 2023ko aurrekontua aldatzea proposatzen da, kreditu gehigarrien modalitatean, 2022ko abenduaren 31ko diruzaintzako gerakinaren kontura.

Kreditu gehigarriak

APLIKAZIOA	IZENA	GEHITU BEHARREKO ZENBATEKOA
0900-3351-209.00	EUSKALTEGIKO MODULUAK	43.000,00 €
GUZTIRA		43.000,00 €

Finantzaketa

Gastu orokorretarako diruzaintzako 2022ko abenduaren 31ko gerakinak aplikatuz

AZPIKONTZEPTUA	IZENA	ZENBATEKOA
870.01	Gastu orokorretarako diruzaintzako 2022ko abenduaren 31ko gerakinak	43.000,00 €
GUZTIRA		43.000,00 €

Bat etorri Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuen otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan xedatutakoarekin, erabaki hori jendaurrean egongo da hamabost egun baliodunetz, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Iragarkia udaletxeko iragarki taulan ere jarriko da. Jendaurrean dagoen bitartean, erreklamazioak, iradokizunak edo ekarpenak aurkeztu ahal izango ditu edozein interesdunek, kontuan har daitezten.

Erabakia jendaurrean dagoen bitartean haren aurkako erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onetsizat joko da eta indarrean jarriko da, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuen otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 16. artikuluan xedatutakoa bete ondoren. Erreklamaziorik egonez gero, Udal Euskaltegiko Administrazio Kontseiluak hilabeteko epea izango du horiek ebazteko.

Laudio, 2023ko azaroaren 9a

Alkate-lehendakaria
AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ